



ALEGIAN FESTAK OSPATUKO DITUZTE

Jai alternatiboak bihar 19:00etan hasiko dira eta Karmen Jaiak etzi, mendi martxa eta txintzarriaren igoserarekin 7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-07-13

VIII. URTEA 2.050. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Sasoia adinik ez duela argi gelditu zen X. Santamañako Kros Igoeran. SARA GOMEZ

SANTAMAÑAKO IGOERAN BEHOBIDE ETA AIT CHAOU GARAILE

JAIK Eskualdean jai giroa nagusituko da asteburuan; herenegun berriz, X. Santamañako Kros Igoera jokatu zuten Asteasun 5

Leitzako Batzar aretoaren erdi-erdian bi dokumentu historiko jarri dituzte

GIZARTEA Bata Leitzako foruen ingurukoa da eta bestea nafar hizkuntzari erreferentzia egiten diona; Santxo VI.ak idatziak dira bi dokumentuak 4

Euskal Herriko Txapelketan eskualdeko hiru segalari

SEGA Jexuxmari Ormaetxea, 'Urki', Jon Kanflanka eta Jokin Etxeberría finalean dira 6

Tolosa Kantari ekimenak ez du atsedenik hartuko

KULTURA Uztailean eta abuztuan kantu-jiran jarraituko dute Alde Zaharreko karrketan 3

MIGEL BELLOSO
SAIAZ ELKARTEKO SORTZAILEA

«Aukera dudan bitartean jarraituko dut begirale bezala»

PILOTA VII. Hitza Txapelketaren amaieran omenaldia jaso zuen 2



LT



TXOKA hitza



sarrerak

Uztailaren 15, 16, 17 eta 18an ospatuko den 14. Villabonako Garagardo Azokarako, bi pertsonentzako 4 afari zozkatuko ditugu, egun bakoitzerako bat

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



E Elkarrizketa

MIGEL BELLOSO » Saiaz elkarteko sortzailea

«Gustura egiten dut lan gazteak pozik joaten direla ikusita»

Pilota » Saiaz pilota elkarteko sortzaileetako izan zen; elkarteko kideek omenaldia egin berri diote «pilotaren alde egindako lanarengatik».

INIGO TERRADILLOS

Iragan larunbatean Beotibar pilotalekuan Hitza Pilota Txapelketa finalak jokatu ziren, eta sari banaketaren unean sorpresa polita jaso zuen Migel Bellosok. Ofizioz medikua da, eta afizioz, berriz, pilota begiralea. Bidegoiango Saiaz pilota elkarteko sortzaileetako bat izan zen, eta ordutik gelditu gabe egin du lan gaztetxoiei pilotan erakusten. Egin duen «lan handia» eskertu nahi izan dute, eta horregatik, omenalditxo egin zioten larunbatean.

Espero al zenuen larunbateko omenaldia?

Ez nuen espero. Finalak iritsi baino bi egun lehenago jakin nuen omenaldia egin nahi zidatela. Oso polita izan zen, oso atsegina, eta asko eskertzen dut. Egia esan, nik gustatzen zaidana baino ez dut egiten, eta lotsati samarra naiz horrelako gauzetarako. Baina, eskertzekoa da.

Urteetan pilotaren alde egin duzun lana nabarmendu du pilota elkartek.

Duela 20 urte joan nintzen Bidaniara lanera. Garai hartan ia hutsik egoten zen herriko frontoia. Niri betidanik gustatu izan zait pilota, eta nire semearekin joaten nintzen jokatzera. Muskil izeneko elkarre bat zegoen lehen, kultur eta kirol jarduerak antolatzen zituena, eta pilota ikastaroa jarri zuten Bidaniako gazteentzat begirale batekin. Elkarre hori desagertu egin zen, eta horrekin batera, pilota

ikastaroa ere bertan behera geratu zen. Horrela, Saiaz elkarre sortu genuen, eta gaztetxoengan pilota bultzatzen jarraitu genuen. Ni begirale bezala aritzen nintzen.

Gero Tolosako Aurrera elkarrekin batu zineten.

Bai. Lehenengo 5-6 urteak Saiaz bezala aritu ginen, eta gero Tolosako Aurrerarekin elkarrekin erabaki genuen. Horrela elkarre handiago izatea lortu genuen, eta horrek txapelketetara eta joatea ahalbidetu zigun.

Zein izan da zure egitekoa elkarrean?

«Lehen herri txikietan ia ez zen talderik osatzen, baina orain bai; gazte ugari ari dira pilotan»

Gaztetxoekin aritu izan naiz beti begirale bezala, eta handixeagoeekin ere bai. Bidanian sendagile bezala aritu izan naizen arte horrela jarraitu dut, baina, egun Ibarroko ambulategian ari naiz lanean, eta Bidaniako taldea utzi beharra izan nuen. Azken bi urteak Ibarroko gazteekin ari naiz.

Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu gaztetxoak entrenatzen?

Aukera dudan bitartean jarraituko dut pilota begirale bezala. Astean bitan entrenatzen dugu. Gazteak oso gustura joaten dira, eta ni ere pozik, beraiek gustura doazelako. Beraz, orainoz ez dut uzteko asmorik.



I.T.

Indartsu dagoen kirola al da pilotata?

Nire ustez bai. Lehen, esaterako ez zegoen talderik herri txikietan. Orain Bidanian Herri Artekarako taldea ere osatzen dugu, beraz, pentsa. Urteko lanaren fruitua da hori. Gazte ugari animatzen direla eta datozela atzetik iruditzen zait.

@ Zurea da hitza. Eskualdeari buruzko albisteak edo iritziak sar ditzakezu *Zurea da hitza* izeneko atalean:
www.tolosaldekohitza.info

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Eskualdean baserria edo borda alokatuko genuke. Interesatuak deitu 634 45 91 10 telefono zenbakira.

Nondik datorkizu pilotarekiko zaletasuna?

Futbola eta saskibaloia bezala, pilota asko gustatu izan zait txikia nintzenetik. Saskibaloian gehiago jokatu izan nuen, baina pilota gehiago gustatu izan zait.

Zer sentitzen duzu Mikel semea profesionaletan ari dela ikustean?

5-6 urte zituela joaten ginen semea

eta biok frontoira. Berak ere, nik bezala, pilotarekiko zaletasuna izan zezan nahi nuen. Baina horretara mugatzen zen nire nahia. Berak, ordea, 10 urte zituenetik argi zuen pilotari izan nahi zuela. Lan handia egin du, eta horren ondorio egun profesionalen bigarren mailan ari da Asegarcerekin. Oso pozik nago eta harro sentitzen naiz lortu duenarekin.

Gutunak

Laguntzaileei eskerrak Aurrera-Saiaz elkarteko partetik

Aurrera-Saiaz pilota elkarrekin eskerrak eman nahi dizkie urteetan zehar euren babes eman diguten erakunde, elkarre eta laguntzaile guztiei: Tolosako Udala, Alegiako

Udala, Albizturko Udala, Adunako Udala, Bidegoiango Udala, Berastegiako Udala, Reviglass, Laex, Grupo Calcinar, Eredu, Eroski, Diva Pensuak, Ezeiza Pasteleria, Fronton Kafetegia, Orvy eta Irarri Inprimategiak.

Aurrera-Saiaz elkarre. Bidegoian-Tolosa.

400 AUKERA HANDIA ETA GUZTIA
Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULANCINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA
EROSI GUREAN

www.euskalherrikoPLaza.com

Iñaki Ochoa de Olzaren inguruko dokumentala ikusteko aukera ostiralean

Tolosa » Ehun Milak mendi lasterketarekin lotuta, proiektzio hau antolatuta dute; Usabal kiroldegian izango da.

ERREDAKZIOA

Ehun Milak mendi lasterketarekin lotuta, Inaki Ochoa de Olzaren dokumentala ikusteko aukera izango da ostiral honetan, Usabal kiroldegian. Proiektzioa 22:15ean izango da Bide Bide jatetxeko terrazan.

Mendi proiektzio ezohikoak izango da. Iñaki Ochoa de Olzaren mendi erreskatea ikusi baitaiteke bertan. Ochoa de Olza 2008ko maiatzaren hil zen Annapurnan bere hamahirugarren 8.000ko saiakeran. Honez gain, antolatzaileek aurreratutakoaren arabera, «oso jende gutxi ikusi duen beste bideo bat ikusteko aukera ere egongo da, sorpresa txiki batekin».

Tolosa CF-k antolatutako paleta lehiak aurrera jarraitzen du

Tolosa » Otermin eta Urdanpilletak osatutako bikoteak lehendabiziko bi partidak irabazi ditu.

ERREDAKZIOA

San Fermin egunean hasi zen Tolosa CF-k antolatutako 42. Paleta Txapelketa. Aurreneko egunekoan, Otermin-Urdanpilleta eta Agirre-Zelaia bikoteen arteko lehendabizikoak izan ziren garaile, 30-15eko emaitzarekin.

Hurrengo egunean berriz, bi partidajokatu ziren Berazubi estadio pilotalekuan. Lehendabizikoan, berritua ere Otermin-Urdanpilleta atera ziren kantzara, Yugueros eta Aldazabali kontra egiteko. Hemen ere garaipena beraiantza izan zen. Markagailuak 3-27 erakusten zuela amaitu baitzen partida. Azkenik, Apeztegia eta Maizak ezin izan zuten Karrera eta Izagirrerekin. Azken hauek 25-30 irabazi zuten.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Jose Javier Mujika gogoan izango dute bihar iluntzean



Leitzako Amazabal auzoan, eraila izan zen lekuan egingo dute bihar arratsaldean, lore eskaintza. IMANOL GARCIA

Leitza » UPNko zinegotzi zenaren eraiketaren bederatzigarren urteurrenean, zenbait ekitaldi egingo dituzte.

ERREDAKZIOA

Union del Pueblo Navarro alderdiak Jose Javier Mujikari omenaldia egingo dio bere eraiketaren urteurrenean. Leitzako zinegotzi izandakoa biharko egunez hil zuen ETAK.

Urtero ekartzen dute gogora

UPNkoek egun hau. Izan ere, Carlos Garcia, alderdiko idazkari nagusiaren hitzetan, «terrorismoaren biktimen sakrifizioa, askatasuna eta demokraziaren defentsan, ezin da ahaztua izan, alderantziz, gure gizartean oso presente egon behar du».

Omenaldia bihar izango da Leitzan, hau da, Mujikaren jaioterrian. Lehendabizi, 19:15ean, ETAK duela bederatzita Jose Javier Mujika bere furgonetan jarritako lehergailu batez hil zuen tokian, hau da, Amazabal auzoan, ekitalditxo bat egingo dute. Bertan

lore eskaintza egingo diote. Ondoren, 20:00ak inguruan, Meza ospatuko dute San Migel elizan. Bertan izango dira, besteak beste, Reyes Zubeldia, Mujikaren alarguna, eta bere seme-alabak. Baita, UPN alderdiko kargu publikoak ere. Bestalde, beste behin ere, «beraien maitasuna, gorespina eta babesa» erakutsi nahiko diete senitartekoei, alderdikideek.

2001eko uztailean 14an bi lagun hil zituen ETAK, Jose Javier Mujika UPNko zinegotzia Leitzan, eta Mikel Uribe ertzainburua Leaburun.

Uztailean eta abuztuan ez du etenik izango Tolosa Kantarik

Tolosa » San Inazio eguneko saioa prestatzen hasiak dira jada, eta horretarako bihar bertan izango da entsegua.

ERREDAKZIOA

Tolosako euskal kantu-jirak, Tolosa Kantarik, bi urte bete zituen joan den hilean. Hala, hiriko Alde Zaharreko kaleetatik barrena kantuan aritu eta gero, Amaro zoko Konponezinak txarangaren konpainian, bukaera Errementari kalean eman zioten, bigarren urtebetetzea kantuan eta mokadu bat janenez ospatuz. Xirimiri kafetegia eta Sukia harategia arduratu ziren hau sukaldatzeaz. Edari freskoa eta txorizo egosia oparitu zieten par-



Joan den hilean bi urte bete zituen Tolosako kantu-jirak. IMANOL GARCIA

te-hartzaleei. Hori dela eta, antolatzaileek eta parte-hartzaleek, eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile guztiei.

Dena den, Tolosa Kantarikok argi dute, bigarren urtebetetzearen ostean, hirugarrenaren bila

doazela. Izan ere, uda partean, uztailean eta abuztuan, ez du etenik izango. Dagoeneko prestatzen ari dira uztaileko azken larunbateko, uztailearen 31ko, kantu ekitaldia, San Inazio eguneko hain zuzen ere.

Bitartean, bi entsegu egingo dituzte. Bata bihar izango da, eta bestea hilaren 21ean. Bietan ere 20:00etan elkartuko dira Tolosako Kultur Etxeko beheko aretoan. Bestalde, hil honetan laguntza emango dieten musikariak Uda-berri dantza taldeko txistulari berteranoak izango dira.

Laburrak

Aranalderen aldeko mobilizazioekin jarraituz

IBARRA » Maite Aranalde bakartzaren aurkako gose greba mugagabearen aurkitzen da. Hori dela eta, Ibarra Amnistia Aldeko Mugimenduak deituta hainbat ekin-tza ari dira gauzatzen herrian. Hala, aste honetan aldzikari berezi bat etxex-etxe banatuko dute eta protestak irauten duen bitartean ostegunero mobilizatuko dira. Gainera, larunbatean, preso dagoen Pitiers Vivonneko espetxera martxa egingo dute Hendaiako eta Iruñeko herritarrekin batera, bertako herrikideak diren Mattin Olzomendi eta Joseba Fernandez ere gose greban baitaude.

Salontzotako herri afarirako txartelak salgai

BERASTEGI » Urtero bezala, Salontzo jaiak hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute, (txekorra buruntzian). Hara joan nahi dutenentzat, txartelak dagoeneko salgai daude, ondorengo lekuetan: Zelai taberna, Dendaberrri, Urepele biltokia eta Basurde elkarte. Helduek 16 euro ordaindu beharko dituzte, eta gaztetxoek (12 urtetik behera) zortzi.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 675390 (larrialdiak)

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurrumendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95



Juan Mari Barriola zinegotzia eta Xabier Zabalo Leitzako alkatea Batzar aretoaren erdian. o.p

Leitzako Batzar aretoaren erdian bi dokumentu historiko ezarri dituzte; bata Leitzako foruaren ingurukoa eta bestea nafar hizkuntzari erreferentzia egiten diona. Horiez gain, Udalak bestelako berrikuntzak egiteko asmoa du.

Berrikuntza zaharrak

OLATZ PEÑAGARIKANO

Lehen aldiz areto horretan sartzen dena mutututa geratuko da, aurrean duen handitasunaz harriturik. Ez du efektu hori bilatzea helburu, baina kasualitatea edo ez, ezaugarri hori ezin hobeto dator kio leku honi. Leitzako tokirik berezietakoaz ari gara, udaletxeko Batzar aretoaz, hain zuzen.

Ez da zalantzarik Nafarroan gaudela; hormaren ezkerrean zintzilik dagoen banderak halaxe adierazten du eta. Beste aldean ageri den lelo iraultzaileak, berriz, *Nor Jaungoikoa bezala*, berezkoa duen xarma ematen dio aretoari.

«Dokumentuak garrantzitsuak dira Leitzaren jatorria erakusten dutelako»

Leitza bailararen maketa handi bat ere badago bertan, eta parez pare herriko argazki zaharra, 1910 ingurukoa.

Dirudenez, Batzar aretoa herri-tarrei zuzendua dago, horrela adierazi digu, behintzat, Juan Mari Barriola zinegotziak. Horregatik erabaki zuten Aretoa berri-

tzea, dagoeneko oso zaharkitua baitzegoen. Egin duten azken berrikuntzetako bat Aretoaren erdi-erdian dago ikusgai, merezi duen lekuan.

Dokumentu historikoak

Duela bi hilabete inguru berreskuratu zituzten antzinako dokumentuok. Aretoaren erdian eskegita daude bata bestearen azpian.

«Batzar aretoa berritu beharra zegoen, herri-tarrei zuzendua dagoelako»

Hauk kopiak dira, originalak ondo gordeta daude. Lehen dokumentuak Leitzako foruen inguruan hitz egiten du, bigarrenak berriz, Nafarroako hizkuntzaren existentzia bermatzen du, dokumentuan *lingua navarrorum* bezala aipatua. Xabier Zabalo alkatea eta Barriolak azpimarratu dutenez, herri-tarrei euren herriaren jatorriaren berri izateko aukera eskaini nahi zitzaizkien, «Leitzaren ibilbideaz eta euskararen presentzi-az» jabetzeko, alegia. Era berean, herri-arentzako garrantzitsuak dira hauk, izan ere, historian ze-

har Leitzako herriari egindako aipamenak gogoratze modukoak dira.

Testu hauen bilaketa, ordea, ez da kasualitate hutsa izan. Hauen existentziaren jakitun ziren Zabalo eta Barriola, beraz, apropos egindako bilaketa izan da. Ikasle bat ibili da lan hori egiten, Udalak horretarako beka berezia atera zuela aprobetxatuz. Emaitza, jakina, arrakastatsua izan da.

Izen berezia

Leitza herriaren izenak badu berezitasuna grafiari begiratzen badiogu. Antzina euskarazko *tz* kontsonante txistukaria ohikoa ez izan arren, betidanik izan du Leitzak berezitasun hori. Kuriositate horren ondorioz hasi ziren artxi-boak arakatzen, harik eta interesatutako dokumentua topatu arte. Bertan ezaugarri hori berretsia ageri da, «dokumentalki frogatua».

Oraindik orain Batzar aretoa txukuntzen ari dira; aulkikiak errestauratzeko daude eta Areto osoan zehar Leitzako argazki zaharren bildumak ezartzeko asmoa dute. Argi dago, beraz, Leitzako Batzar aretoa herriaren bihotza dela, herri-arentzako eta herriagatik egina.



Leitzako Foruen inguruko dokumentua. o.p

LEITZAKO FORUA SANTXO VI.AK IDATZIA

Irudian ikusten dena Batzar aretoaren erdian dago kokatuta. Bere garaian Nafarroako Erresumako erregea izandako Santxo VI.ak idatzi zuen (Santxo Jakituna bezala ere ezagutua). Bera hil baino bi urte lehenago idatzi zuen dekretua, 1192an. Dokumentu historikoa da beraz, Leitza herriaren izana frogatzen duena. Testu zaharragoak egon arren, Areso eta Leitzako herrialdeei erreferentzia egiten dien lehenengo idatziak ditugu. Batzuek, hala ere, herriaren fundazioaren adierazgarri bezala hartzen dute. Bertan lurralde hauen inguruko datuak zehaztuta daude. Arestian esan bezala, idatzi hau interesgarria da oso Leitza herriaren izenagatik; bertan dokumentalki frogatua agertzen baita antzinatik txistukariaren idatzi izan dela Leitza herri izena.



Sancho VI.ak idatzirikoa dokumentua. o.p

NAFARROAKO HIZKUNTZARI ERREFERENTZIA

Hau ere Santxo VI.ak idatzia da. Dokumentu hau historikotzat jotzen dugu Nafarroako Erresumako hizkuntzari erreferentzia egiten diolako. Testuan herrialdean hitz egiten den hizkuntza latinezko *lingua navarrorum* moduan agertzen da, nafarren hizkuntza, alegia. Ez da mintzatzen zehazki euskararen inguruan, alabaina nafarrentzat esanguratsua da dokumentuan egiten den onarpena.

Bi dokumentuok, beraz, Leitzaren garrantzia historikoa bermatzen dute, foruaren eta hizkuntzaren aitopengatik. Horrela, hauetaz gain Batzar aretoan bestelako idatzi batzuk ere ezartzeko asmoa adierazi dute alkateak eta zinegotziak. Horietako batek, esaterako Leitzako historian zehar ekonomikoki izan duen garrantzia adierazten du, olagizonen konbenioak hain zuzen ere.

Behobide eta Ait Chaou azkarrenak maldan gora

Jaiak » X. Kros Igoeran 68 korrikalarik hartu zuten parte. Asteasun, ostiraletik igandera eta Albizturren igandean ospatuko dituzte jaiak.

ENERITZ MAIZ

Asteasuko auzoan ostiralean Mus Txapelketarekin hasi zituzten Jaiak. Igandean X. Santamañako Kros Igoera ospatu zen. Bertan 68 korrikalarik parte hartu zuten eta horietatik 10 emakumeak izan ziren.

Emakumezkoetan lehen sailkatua, Claudia Behobide izan zen, 34 minutu eta 45 segundoko denbora eginez. Bigarrena, Idoia Ezeiza

izan zen 36 minutu eta 44 segundoko denbora eginez. Bigarrena, Patxi Urizar 28 minutu eta 02 segundoko denborarekin eta hirugarren Josu Arregi, 28 minutu eta 03 segundoko denbora eginez.

Gizonezkoetan lehen sailkatua, Hassan Ait Chaou izan zen, 27 minutu eta 52 segundoko denbora eginez. Bigarrena, Patxi Urizar 28 minutu eta 02 segundoko denborarekin eta hirugarren Josu Arregi, 28 minutu eta 03 segundoko denbora eginez.



X. Kros Igoeran parte hartzaileetako bat maldan gora korrika. SARA GOMEZ

Lasterketa, primerako giroan ospatu zen. Bukatzean, dutxa ederra hartu zuten parte hartzaileek eta ondoren hamaiketako eta sari banaketa egin zituzten. Aurten 10. edizioa betetzen zela eta, 10 urte-

tan jarraian parte hartu duten lau korrikalariei sari bereziak eman zizkieten: Pello Izagirre, David Dumall, Patxi Urizar eta Xabin Mujikari hain zuzen ere. Arratsaldean haur jolasak izan ziren.

Ostiraletik aurrera, Tranpazuloren jaitsierarekin jaietara jarraipena emango diete igandera bitarte.

Albizturren berri, igandean egun gutzian zehar ospatuko dute Santa Marinako eguna.

» SANTAMAÑAKO JAIK 2010

ASTEASU

Uztailak 16, ostirala

- **20:00etan.** Festei hasiera emango diete, Tranpazuloren iguera eta txupinazoa botako dute.
- **21:00etan.** Herri afaria.
- **Ondoren.** Kupela taldearekin erromeria. Eta goizaldera, txokolatada.

Uztailak 17, larunbata

- **11:00etan.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketako.
- **13:00etan.** Herri kirolak (Bailarakoen artean).
- **Ondoren.** Bertsolariak: Mañu-korta eta Peñagarikano. Eta trikitilariak: Izer, Alabier eta Lutxurdio izango dira.

- **17:30ean.** Kalejira.
- **Gauean.** Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitilariak. Eta goizaldera, txokolatada emango dute.

Uztailak 18, igandea

- **10:00etan.** Andazarrateko XXVI. Igoera (Federatu gabeko txirriindulariantzat).
- **11:30ean.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Herri kirolak: aizkolariak, Floren Nazabal, Ugaitz Mugerra eta Jokin Alkizalete. Harri jasoak: Joseba Ostolaza eta Urdax Magunazelaia (12 urte). Laja eta Landakandak alaiturik.
- **18:00etan.** X. Zaldi Lasterketa.
- **Ondoren.** Trikitilariak eta Bertsolariak.

- **Gauean.** Laja eta Landakanda. Gaurdian, festei amaiera Tranpazuloren jaitsierarekin.

ALBIZTUR

Uztailak 18, igandea

- **12:30ean.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Bazkaria Segoretxe-Berri jatearekin, Malbadi anaien trikiti doinuek lagundurik.
- **18:30ean.** Herri kirolak: iparraldeko jokoak (ingudea, lastoa,...) izango da eta etorkizuneko aizkolariak.
- **Jarraian.** Amaia Agirre eta Iker Zubeldia bertsolariak.
- **Afalostean.** Malbadi anaien trikiti doinuek eta Agirre eta Zubeldiaren bertsuak izango dira.



Urtero bezala emakumeak ere atera ziren. SARA GOMEZ

Usakume tiraketako XXXII. Behar-Zana Sari Nagusia izango da igandean

Villabona » Goizean goizetik, Izarre zelaian tiratzaile ugari bilduko dira. Dirutan 1.600 euro banatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Igandean, Izarre zelaian, Usakume tiraketako Behar-Zana Sari Nagusia jokatuko da. Aurtengoa lehiaketaren XXXII. edizioa izango da.

Goizean, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara izango da. Inskripzioa 28 euro izango da eta usakumeak



Usakume tiraketa jokatzen Izarre zelaian. MADDI SOROA

aparte izango dira. 18 metroko distantziatik egingo dute tiro eta sei tiratzaileetako serieak izango dira. Sari ugari izango da: lehenaren-tzat, 500 euro eta txapela izango dira. Bigarren sailkatuak 350 euro, hirugarrenak, 200 euro, laugarrenak 140 euro, bosgarrenak eta seigarrenak 90 euro, zazpigarrenak

80 euro, zortzigarrenak, 70 euro eta bederatzigarrenak eta hamar-garrenak, 35na euro jasoko dituzte. Gainera, lehen hamar sailkatuek, oroigarria edo urdaiazpikoa aukeran izango dute. Hamaikagarrenetik, hogeita hamarrena, oroigarria edo urdaiazpikoa izango dira eta Elkarteko lehen bi bazkideek, trofeoak jasoko dute.

Tiro zuzendaria, Jose Mari Lizaso izango da. Gipuzkoako Ehiza Federazioko epaileak izango dira eta Federazioko araudia jarraituko dute.

itzulnet
ITZULPEN ZERBITZUA

San Frantzisko 11, Tolosa
www.itzulnet.net

AZKARTASUNA ETA
KALITATEA

HIZKUNTZA KONBINAZIO
UGARI ETA
PREZIO LEHIAKORRAK

BEHERAPENAK BOLLUMEN
ETA MAIZTASUNARENGATIK



Jexuxmari Ormaetxea, 'Urki', Aizarnako kanporaketan. HITZA

Eskualdeko hiru segalari egongo dira Euskal Herriko Txapelketaren finalean

Sega » 'Urki', Kanflanka eta Etxeberria txapelaren lehian ariko dira hilaren 18an, Oiartzunen 12:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Jexuxmari Ormaetxea, *Urki*; Jon Kanflanka, David Mariñelarena eta Jokin Etxeberria sailkatu dira heldu den igandean jokatu den Euskal Herriko Segatxapelketaren finaleko. Hortaz, bigipuzkoar eta bi nafar ariko dira hilaren 18ko finalean, Oiartzungo Pikoetan, 12:00etan hasita.

Lehen finalerdian, 'Urki'

Asteburuan bi finalerdi jokatu ziren Aizarnan eta eskualdeko segalariek emaitza bikainak lortu zituzten. *Urki* orendaindarrak izan zen garaile lehen finalerdian eta Kanflanka bigarrengoan. 250 ikus-

le bildu ziren kanporaketak zuzenean ikusteko.

Segalari bakoitzak ordu erdiko lana egin zuen, eta bakar bati ere ez zioten epaileek zigorrik edo penalizatorik ezarri, aski txukun ebaki baitzuten. Bibelarra edo bigarren korteke belarra izan zuten segalariak, aski egokia izan bazen ere lanean jarduteko, tarteka lurra ere aurkitu zuten. Ondorioz, segalarien zorroztaileek gogotik lan egin behar izan zuten.

Lehen finalerdian, Jexuxmari Ormaetxea, Aitzol Intxaurre (Zeanuri, Bizkaia) eta David Mariñelarena (Lantz, Nafarroa Garaia) lehiatu ziren. Orendaindarrak hartu zuen aurrea hasieratik, eta lehen saila amaituta, minutu bateko aldean kendu zion Mariñelarenari; Intxaurrek bi minutu beranduago amaitu zuen. Azkenean, *Urki* 142,5 kiloko aldean atera zion Mariñelarenari eta 262 kiloko Intxaurberri.

Kanflanka, bigarrengoan

Bigarren finalerdian Jon Kanflanka, Jaime Atxa (Areatza, Bizkaia) eta Jokin Etxeberria (Amasa) aritu ziren segan. Txanda honetan handixeagoa izan zen oreka, baina, halere, leitzarra aritu zen aurretik saio osoan. Kanflankak 2 minutu eta 16 segundoko aldean atera zion lehen sailean. Hortik aurrera segalari bakoitzak bere erritmoari eutsi zion. Azkenean, Kanflankak 73,5 kiloko aldean atera zion Etxeberriari eta 295,5ekoa Atxari. Etxeberriak eta Atxak estreinako Txapelketa zuten igandeko. Ondorioz, Jokin Etxeberria lehen aldiz ariko da Euskal Herriko Segatxapelketako finalean. Igandeko finalean ordubeteko lana egin beharko dute lau segalariek.

Bi kanporaketak jokatu ostean, Mariñelarenarekin batera eskualdeko hiru segalari egongo dira Oiartzungo finalean: *Urki*, Kanflanka eta Jokin Etxeberria.

Alonso munduko txapeldun

ERREDAKZIOA

Munduko futbol txapelketa irabazi zuten igandean Xabi Alonso tolosarrak. Real Madrilko jokalariek Espainiarekin jokatu du munduko txapelketa eta finalean Holanda menderatu zuten 0-1eko emaitzarekin. Alonsok 87 minutu jokatu zituen. Une horretan, tolosarraren lekua Arsenal taldean jokatzen duen Cesc-ek hartu zuen.

Espainiak bere gola 116. minutuan sartu zuen, arauzko 90 minutuak 0-0 amaitu ondoren. Garapenaren gola FC Barcelonako Iniesta jokalariek sartu zuen.

Tolosaldeko neskek bi bandera irabazi dituzte Gipuzkoarekin

Arrauna » Larunbatean Pedreñan eta igandean Portugaleten, Eusko Tren Ligako lehen bi jardunaldiak jokatu dira.

ERREDAKZIOA

Eusko Tren Ligako lehen bi estropadak jokatu ziren asteburuan, Pedreñan eta Portugaleten. Gipuzkoako selekzioak irabazi zituen bi lehiak. Traineruan Tolosaldeko neskek aritu ziren lanean, Getaria-koekin batera. Bigarren postuan iazko txapelduna gelditu zen, Galizia.

Lehen jardunaldia, larunbatean Gipuzkoak Marina de Cudeyoko bigarren bandera irabazi zuen Pedreñako uretan. Gipuzkoarrek lehen luzean 6 segundoko errenta atera zioten Galiziarri eta bigarren luzean distantziari eustea lortu zu-

ten. Hirugarren postuan Bizkaia sailkatu zen eta laugarren Kantabria. Azken hauek, aurrean hasi dira Eusko Tren Ligan.

Bigarrena, igandean

Portugaleteko eremuan kaleek garrantzi handia dute. Lehen kalean inork ez du arraun egin nahi eta zorte txar hori Kantabriakoek eduki zuten. Gipuzkoako neskek bigarren kaletik irten ziren eta aurreko egunean bezala, Galiziarrekin eduki zuten lehia gogorra. Zia-bogan 5 segundoko alde lortu zuten Tolosaldeko eta Getariako arraunlariek. Tarte segundo batean handitu zuten amaieran.

Hirugarren Bizkaia iritsi zen helmugara, 27 segundora. Lehen jardunaldian bezala, azken postua Kantabriak lortu zuen, 53 segundora.

Bi jardunaldiren ostean, Eusko Tren Ligako sailkapen nagusian gipuzkoarrek dira nagusi.

Euskal Herriko Txapelketan Areso bigarren gelditu da

Sokaitira » 600 kilotan hirugarren eta azken jardunaldia jokatu zen larunbatean, Erandioko lurretan.

ERREDAKZIOA

Goiherrri A talde bizkaitarrak aurreko bi jardunaldiak irabazi zituen 600 kilotan, txanda eta tiraldi guztietan nagusi izan zelarik, ondorioz, alde handi samarrenekin ekin zion larunbatean pisu horretako hirugarren eta azken jardunaldiari. Erandioko taldeak jokatu sei txandak eta 12 tiraldiak irabazi zituen, jardunaldiko zazpi puntuak eta txapela bereganatuz.

Bigarren eta hirugarren posturako, berriz, berriro ere parra egin zuten Aresok eta Mutrikuak, elkarri tiraldi bana irabazita. Baina aurrez Aresok puntu bateko aldean zuen, bigarren postuari eustea lortu zuen.

Larunbateko saioa Erandioko Goiherrri-San Cristobal auzoan jokatu zen, eta Txapelketako bederatzigarrena izan zen. Aurreko bi jardunaldietan bezala, zazpi taldeok lehiatu ziren: Areso (Nafarroa Garaia), Gaztedi A eta Gaztedi mistoa (Laukiz, Bizkaia), Getxo (Getxo, Bizkaia), Goiherrri A (Erandio, Bizkaia), Goiherrri B

(Erandio, Bizkaia) eta Mutriku (Mutriku, Gipuzkoa).

Guztira 21 txanda eta 42 tiraldi jokatu ziren. Lur ona suertatu zen lehian aritzeko. Bigarren jardunaldian lur hautsia izan zuten tiralariek, Amorotoren, baina hirugarrenean ez, ondorioz, lurrean koskak egiteko aukera izan zuten tiralariek. Oro har, tiraldi laburrak gertatu ziren, eta saioak bi ordu eta erdi pasatxo iraun zuten.

Lehenbiziko sailkatuen arteko lehian, Goiherrri A-k minutu azpitik irabazi zizkion bi tiraldiak Aresori, eta luzexegoak izan ziren beste bi tiraldiak, Mutrikuari. Mutrikuaren eta Aresoren arteko txandak, Aresok irabazi zuen lehen tiraldia, baina bigarrena Mutrikuak eraman zuen, epaileak hirur falta adierazi zizkiolako talde nafarrari bata bestearen atzetik, bizi-bizi. Bi talde horiek mendearen hartu zituzten Goiherrri B, Gaztedi mistoa, Getxo eta Gaztedi A. Goiherrri B-k, berriz, Gaztedi bi taldeak eta Getxo menderatu zituen, eta Gaztedi mistoak, Getxo eta Gaztedi A. Horiek biek, aldiz, parra egin zuten, elkarri tiraldi bana irabazita.

Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu ondoren, 600 kiloko azken sailkapenean Aresoko taldeak lortu du bigarren postua. Mutriku hirugarrenari puntu bateko aldean atera diote nafarrek.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Etzi hasiko dira Alegiako Karmen festak

Alegia » Prest dago guztia ostegunerako, eta baita bihar hasiko diren festa alternatiboetarako ere, igandera artekoak biak.

OHANA IGUARAN

Ostegunean, hilaren 15ean, eman-go zaie hasiera Alegiako jaiei, ohi-tura den moduan, txintxarriaren igoyerekin. Gogor aritu dira lanean udaleko zein jai alternatiboetako festa batzordeak, guztia behar bezala prest egoteko.

Izan ere, jai alternatiboan kasuan, bihar izango da txupinazoa, eta bost egunetarako egitarau zabal prestatu dute.

Aipatzekoa da, aurtien festa alternatiboek 25. urteurrena betekoa dutela.



lazko festetako txupinazoa, txintxarriaren iguera. NEREA URBIZU

» EGITARAUA

JAI ALTERNATIBOAK Bihar, hilak 14

- **19:00.** Txupinazoa.
- **Gero.** Sagardo dastaketa.
- **Ondoren.** Zagiardoa.
- **Gaean.** Trikitixa.

Etzi, hilak 15

- **Iluntzean.** Zagiardoa.
- **Gaean.** kontzertuak:
 - Keiren
 - Kozka
 - Ziklox
 - Manilares Iturriaga

Hilak 15, ostirala

- **Eguerdian.** Herri bazkaria
- **Jarraian.** Zagiardoa
- **Ordu txikitán.** Gau elektronikoa.

Hilak 16, larunbata

- **Iluntzean.** Zagiardoa
- **Gaean.** Gaztetxean «txapa hotsa ta burrundie».
- **Ondoren.** Bulebarrean herriko DJ-ak.

Etzi, hilak 15

- **Iluntzean.** Zagiardoa.
- **Gero.** Herriko bertsolariak.



Aurtien ere sagardo dastaketa. HITZA

» EGITARAUA

KARMEN JAIK

Etzi, hilak 15

- **9:00.** Jubilatuek antolatutako MENDI MARTXA.
- **10:00-14:00.** HAUR PARKEA eskolako atarian
- **13:00.** Apar Festa
- **11:00.** Jubilatuentzat HAMAI-KETAKOIA.
- **14:00.** HAURREN bazkari herrikoia plazan.
- **15:30.** Umeentzat baserriko jokuak KULKI taldearen eskutik, eskola atarian.
- **18:30.** Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien ERAKUSKETA udaletxeko arkupeetan.
- **18:30.** Ordiziako erraldoi eta buruhaundiak eta Giroarte dultzaina taldearekin KALEJIRA Larraitz auzotik plazaraino.
- **19:00.** Euskal Presoak Euskal Herrira lemapean KONTZEN-TRAZIOA plazan.
- **19:00.** Txupinazoa eta Txintxarriaren iguera, Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzen eskutik.

- **19:30.** ITZEL taldearekin trikitixa plazan.
- **21:00.** ZAHAGIARDOA herriko plazan.
- **22:30.** BERTSOLARIK kultur etxean: Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.
- **23:30.** ITZEL taldearekin dantzaldia.

Hilak 16, ostirala

- **9:00.** Herriko txistularien eta trikitilarien DIANA.
- **9:30.** GIROARTE dultzaina taldearen diana.
- **11:00.** "IRAUNKORRAK" txaranga kalez kale ibiliko da.
- **12:30.** Alegiako SUTARRI DANTZA TALDEAREN emanaldia herriko plazan.
- **16:00.** Umeen Santos Futbolito Torneoaren finala.
- **17:00.** HAUR JAIALDIA eskolako atarian. Merienda eta jokuak
- **19:00.** HORTZMUGA taldearen

Olympikas 2012 kale antzerkia.

- **21:00.** ZAHAGIARDO BATERATUA. Ardoa gaztetxeak eta postrea Udalak.
- **22:30.** PILOTA PARTIDUAK - Kadeteak: Iñaki ARTOLA - Beñat ZABALA Beñat URRETBIZKAIKA - Erik JAKA
- NESKAK: Ainhoa GARMENDIA (Alegia) - Nagore AROZENA (Lizartza)
- Uxue FERNANDEZ (Urretxu) - Ainhoa MONTES (Intxaurren) - Senior: Ugaitz RENOBALLES - Asier MINTEGI
- lurgi LARRAÑAGA - Eneko GALARRAGA
- **00:00.** HUMUS eta WE ARE STANDARD taldeen kontzertuak.

Hilak 17, larunbata

- **9:00.** ARRANTZA LEHIAKETA Ori ibaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat.
- **9:00.** Herriko txistularien eta trikitilarien DIANA.

- **9:30.** GIROARTE dultzaina taldearen diana.
- **12:00.** Sagardo DASTAKETA sardina eta txorizo erreekin.
- **12:00.** ASIER UNSAIN eta IRMA KARRERAREkin trikitixa herriko plazan.
- **17:30.** Ume JOLASAK plazan.
- **19:00.** ASIER UNSAIN eta IRMA KARRERAREkin trikitixa herriko plazan.
- **19:00.** Herritarren arteko TOKA TXAPELKETA plazan (18 urtetik gorakoentzat).
- **19:30.** Patata tortilla TXAPELKETA.
- **21:00.** HERRI AFARIA plazan (Sagardotegi menua).
- **23:30.** ANJE DUHALDEREEN kontzertua plazan.
- **01:00.** DJ IMANOL

Hilak 18, igandea

- **9:00.** GIROARTE dultzaina taldearen diana.
- **9:30.** Kalejira berezia, lehengo eta oraingo herriko txistulariekin.

- **12:30.** Txistularien alardea Txintxarri abesbatza eta Sutarri dantza taldeekin (tartean LUKAS LASARI eskertza ekitaldia).
- **18:00.** HERRI KIROLAK Larraitz auzoko plazan. Harrijasotzaileen V. TXINTXARRI SARIA - Patxi Larretxea, Izeta II, Izeta III eta Ostolaza II - Aimar Irigoien, Unai Bertiz, Urtzi Telleria eta Izeta IV Harriak: 125 kiloko kopa, 112,5 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro-zaharra, 125 kiloko errektangularra eta 100 kiloko bola. Ondoren, Gipuzkoako Lastoaltzate Txapelketa.
- **19:45.** Bielorrusiako "BALLET ESTATAL DE VALENTIN DUDKEVIC" dantza taldearen emanaldia plazan.
- **23:00-03:00.** Dantzaldia DRINDOTS taldearekin.
- **00:00.** TXINTXARRIAREN ERREKETA.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Berastegi.** Salontzo jaietako hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute (txekorria burduntzian). Txartelak salgai Zelai taberna, Dendaberri, Urepele biltokia eta Basurde elkartean 16 eurotan (12 urtetik beherakoek 8 euro).
- **Leitza.** I. Korto Lehiaketa. Gaia libre da, gehienez 15 minutuko filma, taldeka nahiz banaka. Talde bakoitzak gehienez hiru lan desberdin, kameraz edo mugikorrez grabatuak, hauek DVD batean utzi behar dira, eta kartazal batean sartuta, Atekabeltz gaztetxeko atarian.
- **Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkarteko Garaioa (Araba) irteera antolatuta du abuztuaren 6rako. Informazioa, elkartean (Euskal Herria plaza).
- **Tolosa.** Uztailaren 16tik 18ra Eriste (3.053 m) eta Posets (3.375 m) mendietara irteera antolatuta du Oargik, Viados eta Angel Orus atarpetxeetan lo egingez. Informazioa: www.oargi.org.
- **Villabona.** Ahoz kotasuna kulturaren, eguneroko jardun berezitu eta haur munduan jardunaldiak burutuko dira uztailaren 22, 23 eta 24an Subijana Etxean. Izen-emateko epea uztailaren 16ra luzatuko da, 50 eurotan (EHBEko bazkideek eta ikasle eta langabetuek 35 euro) Mintzola Fundazioan (943 69 41 29 edo administrazioa@bertsozale.com). Antolatzailea: Mintzola Fundazioa eta Bertsozale Elkartea.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aizkardiko mendi irteera «polita»

VILLABONA ● 30 lagun inguruk hartu zuten parte herenegun Aizkardi mendietako elkartekoek proposaturiko mendi irteeran. Ozako oihanetik abiatu ziren Castillo de Atxer (2.384 m) gailurrera igotzeko. Han hamaiketako egin zuten indarberitzeko, eta ondoren, batzuk bigarren gailur bat egite-

ko aukera izan zuten, Aguerri (2.449 m), hain zuten. Gero, mendizale guztiak Gabardito atarpetxean elkartu ziren. Ederki bazkaldu eta pixka bat freskatu ostean, autobusa hartu eta Villabonara itzuli ziren. Egun pasa «polita» burutu zuten, «griro ederrean». AIZKARDI

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>